SGAE Fundazioak, emakumeen film luzeen zuzendaritza babesteko eta bultzatzeko xedez, hau deitu du



Dunia Ayaso
SARIA 2026

Film Luzeen Emakumezkoen Zuzendaritzako

OINARRIAK

01 Lehiaketa honetara **SGAEko bazkide diren eta afiliazio esklusiboa duten edozein nazionalitateko emakume zuzendari/zinegile guztiak** edo SGAEko bazkide gisa alta emateko prozesuan dauden zuzendariak aurkeztu ahal izango dira. Egilekidetza kasuetan, egilekide guztiek SGAEko bazkide izan beharko dute esklusibotasunean edo bazkide izateko prozesuan, salbuespenik gabe. **Egilekide guztiak emakumeak direnean** bakarrik onartuko dira egilekidetzako lanak. Deialdi honetatik kanpo geratzen dira SGAEren Zuzendaritza Batzordeko, SGAEren Gainbegiratze Batzordeko eta SGAE Fundazioaren Patronatuko emakumeak.

02 2026ko urtarrilaren 1etik aurrera estreinatu diren edo beranduenez 2026ko abenduaren 31n estreinatuko diren eta soilik emakumeek zuzendu dituzten film luzeak aurkeztu ahal izango dira lehiaketara. Edozein gairi buruzko film luzeak aurkez daitezke.

03 Saria 5.000 €-koa da, eta indarrean dagoen araudiaren arabera dagokion tributazioa aplikatuko zaie. Egilekidetzan egindako lanen kasuan, saria egilekide guztien artean banatuko da, zati berdinetan. Irabazleari 2026ko azaroaren 7an emango zaio saria Sevillako Europako Zinema Jaialdiaren barruan.

Ahal den neurrian lehiaketa honetara aurkeztu nahi dutenek, sarituak izanez gero, saria jasotzera zuzenean joateko prest egon beharko dute.

04 Lehiakideak **posta elektronikoz**, aurkeztuko dira lehiaketara, ondoren adierazten den dokumentazioa erantsita:

a) Parte hartzeko eskaera, film luzeko zuzendari guztien datuekin. Oinarri hauei erantsitako eredua erabili beharko da.

b) SGAEn bazkide gisa alta emateko prozesuan dauden egileen kasuan, alta-prozesua egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztu beharko dute.

c) Lehiakideen curriculum vitaea.

d) Lehiaketara aurkezten den film luzearen fitxa tekniko-artistikoa eta epaimahaiak lehiaketara aurkezten den film luzea ikusteko esteka.

Dokumentu horietakoren bat ez badago, lehiakideak era automatikoan deskalifikatuta geratuko dira.

05 Eskatzen den dokumentazio guztia posta elektronikoz bidali beharko da **audiovisuales@fundacionsgae.org helbidera, 2026ko abuztuaren 27tik urriaren 1era bitartean (biak barne)**, mezu elektronikoaren gaian ondoren adierazten dena jarriz: **"X Premio "Dunia Ayaso – Obra para concurso".**

06 Sariaren epaimahaia SGAE Fundazioak izendatutako zinemagintzako profesionalek osatuko dute.

07 Saria ezin izango da eman gabe utzi, eta epaimahaiaren erabakia apelaezina izango da. Epaimahaiko kideen artean boto-berdinketa badago, epaimahaiburuak bere kalitatezko botoa erabili ahal izango du.

08 Saritutako egileak/ek konpromisoa hartzen dute, ahal den neurrian, film luzearen kopietan, euskarri zinematografikoan zein bideografikoan, edo beste edozein motatako sustapen-euskarri edo -materialetan, **Film Luzeen Emakumezkoen Zuzendaritzako Dunia Ayaso X. Saria** aipamena eta SGAE Fundazioaren logotipoa berariaz sartzeko.

09 Finalistatzat hautatu ez diren lanen artxiboak suntsitu egingo dira saritutako film luzea jakinarazten denetik aurrera. Ez da horiei buruzko korrespondentziarik izango.

10 Parte-hartzaileek, deialdi honetan parte hartzeagatik, osorik onartzen dituzte oinarri hauek eta epaimahaiaren erabakiak.

11 Parte-hartzaileek plagiotik edo parte-hartzaileren batek indarrean dagoen legedia urratzetik eratorritako edozein erantzukizunetatik salbuesten dute SGAE Fundazioa.

12 Erreklamaziorik edo gatazkarik izanez gero, bai parte-hartzaileek bai erakundeak Madril hiriburuko auzitegien jurisdikzioaren mende jarri beharko dute.

MATERIALEN BIDALKETA
audiovisuales@fundacionsgae.org

INFORMAZIOA
Interesdunek hemen egin ahal izango dituzte oinarri hauei buruzko kontsultak edo informazio gehiago jaso:

audiovisuales@fundacionsgae.org
www.fundacionsgae.org
www.sgae.es

fundación sgae fundazioa



Dunia Ayaso
SARIA 2026

Film Luzeen Emakumezkoen Zuzendaritzako

IZENA EMATEKO FITXA

Izena(k) eta abizenak .....

SGAEko bazkide zk. .....

Izenburua .....

Helbidea .....

Posta kodea .....

Udalerria .....

Probintzia/Herrialdea .....

Telefono-zenbakia(k) .....

Helbide elektronikoa .....

Film Luzeen Emakumezkoen Zuzendaritzako "Dunia Ayaso" X. Sarian parte hartzeko izena emateko eskabide hau aurkezten duten egileak/ek

ADIERAZTEN DU(TE):

1.- Film Luzeen Emakumezkoen Zuzendaritzako "Dunia Ayaso" X. Sarian parte hartzeko eskabidea(k) bere/euren borondatez aurkeztu ditu(zt)ela.

2.- Deialdi horren oinarriak irakurri eta ezagutzen ditu(zt)ela eta edukia bere gain hartzen du(t)ela. Ondorio horietarako, bere/euren curriculum vitaea aurkeztu du/te.

3.- Badaki(t)ela, Film Luzeen Emakumezkoen Zuzendaritzako "Dunia Ayaso" X. Sariaren deialdi honetan parte hartzea kudeatzeko, SGAE Fundazioak bere/euren datu pertsonalak tratatzea beharrezkoa izango dela, lehiaketan parte hartzeko eta epaimahaiak irabazlea hautatzeko beharrezkoak diren administrazio-kudeaketa guztiak egiteko.

Azaldutako guztiarengatik, BERARIAZ ONARTZEN DU(TE):

SGAE FUNDAZIOAk bere/euren datu pertsonalak tratatzea. Datu horiek idazki honetan eta Film Luzeen Emakumezkoen Zuzendaritzako "Dunia Ayaso" X. Sariaren deialdian parte hartzeko eskaerarekin batera doan curriculum vitaean daude jasota, lehiaketan parte hartzeko eta epaimahaiak irabazlea hautatzeko beharrezkoak diren administrazio-kudeaketa guztiak egiteko.

Datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoak babesteari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduan, eta abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan eta xedapen osagarrietan ezarritakoarekin bat etorriz, badaki/te bere/euren datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko, mugatzeko, aurka egiteko, eramateko eta erabakiak modu automatizatuan ez hartzeko eskubideak erabili ahal izango ditu(zt)ela SGAE FUNDAZIOAREN aurrean, SGAE Fundazioaren zerbitzu juridikoetara idazki bat bidaliz erakundearen egoitza sozialera (calle Bárbara de Braganza, nº 7, C.P. 28004, Madrid, España), bere/euren izen-abizenak, NANa, helbidea, gauzatutako eskubidea eta arrazoiak adieraziz.

Eskatzailearen/eskatzaileen sinadura

..... andrea .....andrea